


## EAE-KO EKONOMIAREN AURREIKUSPENAK


### Eusko Jaurlaritzak gorantz zuzendu du hazkunde aurreikuspena

#### Barne produktu gordinaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasa




EAEko eta ingurunekeo informazio ekonomiko berria argitaratuta, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2017rako eta 2018rako ekonomia aurreikuspenak berrikusi ditu. Hazkunde aurreikuspenen eguneratzeak adierazten du 2017rako aurreikusi zen %2,9ko aldakuntza tasa bere horretan utzi duela, baina goranzko zuzenketa txikia egin du 2018rako, urte horretarako hazkunde tasa %2,5ean kokatu arte. Beraz, oraindik pentsatzen da gaur egungo bizitasuna motelduko dela 2018ko lau hiruhilekoetan. Joera bera islatzen da lan merkatuan, non enplegua 2017an eta 2018an, hurrenez hurren, %2,0 eta %1,7 haziko dela uste baita. Eskariaren ikuspegitik, kontsumoak ezagutuko du apaltze biziena eta inbertsioak %3,3aren inguruko hazkunde egonkorra erakutsiko du.

#### Azken kontsumoaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasa




#### Inbertsioaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasa




### Industriaren balio erantsia

Urte arteko aldakuntza tasa




### Eraikuntzaren balio erantsia

Urte arteko aldakuntza tasa



### Zerbitzuen balio erantsia

Urte arteko aldakuntza tasa




Eskaintzari dagokionez, aurreikuspenek seinaltzen dute jardura adar guztiek, lehen arloak izan ezik, ekarpen positiboa egingo diotela barne produktu gordinaren hazkundeari.

Urteko batez bestekoan, industriaren aldakuntza tasa %2,5 izango da 2017an eta %2,8, berriz, 2018an. Eraikuntzak hazkunde positiboa lortuko du, bizitasun iraunkorra erakutsiz. Beste aldetik, zerbitzuek moteltzeko joera neurritsua marraztuko dute, baina gehikuntza esanguratsuak eskuratuko dituzte, hots, %3,1 eta %2,6, hurrenez hurren, 2017an eta 2018an. Industria eta zerbitzuak izango dira EAEko ekonomiaren motor bultzagileenak.

### Enplegua

Urte arteko aldakuntza tasa



### Langabezia tasa

Urte arteko aldakuntza tasa

